

Kutxabankek Administrazio Kontseilua berritu du

- **Bi kontseilari independente berri izendatu ditu, María Aranzazu Iraizoz Real eta José Ignacio Merino Martín, eta gobernu-organo honetan beste 6 kideren jarraipena berretsi du**

2024ko ekainaren 28an. Kutxabankeko Akziodunen Batzar Nagusiak María Aránzazu Iraizoz Real eta José Ignacio Merino Martín kontseilari independente izendatzea onartu du, bankuko Administrazio Kontseiluak proposatuta.

Gaur goizean egindako bilkuran, Batzar Nagusiak **Joseba Mikel Arieta-araunabeña Bustinza, Alexander Bidetxea Lartategi, Josu de Ortuondo Larrea, Rosa María Fátima Leal Sarasti, Ricardo del Corte Elduayen eta María Manuela Escribano Riego** erakunde gobernu organoan berretsi ditu.

Honela, Kutxabankeko Administrazio Kontseilua 2 kontseilari exekutibok (presidenteak eta kontseilari delegatuak), 6 independentek eta 8 dominikalek osatuko dute, azken hauek BBK, Kutxa eta Vital akziodun banku fundazioek proposatuta izendatutakoak.

María Aránzazu Iraizoz Real Deustuko Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da eta ESADE Business School-en MBA. Kontseilari berriak esperientzia handia du finantza-alarrean, batez ere arrisku globalaren kontrolean eta reporting arloan, baita altxor eta kapitalen merkatuetan ere. Gaur egun, aholkularia da negozio estrategiaren, bideragarritasun planen eta finantza eta finantzaz kanpoko inpaktuen neurketaren arloan.

José Ignacio Merino Martín Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da UPV-EHU eta 1988tik kontulari titularra da. 1995az geroztik BBVAko goi zuzendaritzako kidea izan da, finantza-talde horretan erantzukizuneko kargu ugari izanik, bai Espainian bai Latinoamerikan. Besteak beste auditoretzan, arriskuen alorrean, aniztasun geografikoko gaietan eta taldeen kudeaketako arloetan aritu izan da.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldea du, eta Europako ikuskatzaileen arabera, finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.